

Elgoibar - 1314. zenb.  
XXXI. urtea - 2024-01-26



TOKIKOM

BARREN

# Amaitu da 'Bateragune auzia'

Arnaldo Otegi



**UNAI MUGERZA OSTOLAZA** (Elgoibar, 22 urte)

Ikasketak: Elgoibarko Ikastolan eta Elgoibar BHI ikastetxean.

Gradua: Industria Elektronikako Ingeniaritza.

***“Ikasteko metodologia berritzailea da,  
proiektuetan oinarritzen baita”***

► **Industria Elektronikako Ingeniaritza gradu 4. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

DBHko 4. mailan argi nuen zientifiko-teknologiko modalitateko Batxilergoa egingo nuela. Hasieran ez nuen argi zer ingeniaritza aukeratu, mekanikoa edo elektronikoa, baina bi graduetak ate irekietara joan ondoren, Industria Elektronikako Ingeniaritza aukeratzea erabaki nuen.

► **Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?**

Oso positiboa. Hasieran erritmoa hartzea kosta zitzaidan, baina behin erritmoa hartuta, oso gustura egon naiz eta gauza asko ikasi ditut.

► **Zer metodologia erabiltzen duzue, nolakoa da?**

Berritzailea dela esango nuke edo ez oso ohikoa, behintzat. Eskola teorikoak jasotzeaz gain, seihileko bakoitzean proiektu praktiko bat egiten dugu, PBL izeneko. Bertan seihilekoan zehar ikasitakoa praktikan jartzen dugu, baita ikaslearen irudimena, sormena, eta abar landu ere. Proiektu hauek oso lagungarriak iruditzen zaizkit, bai seihilekoan zehar ikasitakoa hobeto ulertu eta barneratzeko eta baita proiektu konkretu hori gauzatzeko beharrezkoak diren kontzeptu berriak ikasteko ere.

► **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta badago zerbait hobetzeko?**

Gehien gustatzen zaidana irakasle-ikasle arteko harreman gertukoa da, edozein zalantza edo

arazoren aurrean beti daude laguntzeko prest. Horrez gain, COVID pandemiaren geroztik, eskolak etxetik jarraitzeko eta etxetik lan egiteko baliabide guztiak eskaintzen dizkigute, eta hori ere eskertzekoa da.

► **Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL ereduan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?**

Mondragon Unibertsitatean bertan egiten dut lan. Sarera konektatutako bihurtailuen kontrol bat diseinatzen nabil. Energia iturri berriztagarriekin sortzen den energia, panel fotovoltaikoekin sortutakoa adibidez, sarera modu egoki batean isurtzeko bihurtailuak erabili ohi dira, eta bihurtailu horiek kontrolatuta egon behar dira. Oraingoan, eskala txikiago baten ari naiz lanean diseinatzen nabilen kontrola bideragarria izan daitekeen ikusi ahal izateko, eta hala balitz, eskala errealean inplementatuko litzateke.

► **Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Lan munduko errealiterara gerturatzeko aukera paregabea da. Gainera, eskolako bost orduetaz gain, egunean lau orduz lana egin behar horrek denbora hobeto kudeatzen eta disziplinatua izaten lagundu dit.

► **Etorkizunari begira zer asmo dituzu?**

Gradua amaitzean ikasten jarraitzeko asmoa dut eta, graduaren zehar egin dudana bezala, eredu dualarekin partekatzea gustatuko litzaidake. Horrez gain, lan muduan erraztasun gehiago izateko ingelesean hobetzea da nire helburuetako bat.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Ane Kortaberria

Ikasle ekintzailea

## Aldaketa klimatikoa, 'fast fashion', bla, bla, bla...



**"Azken urteotan, hainbat aldaketa egiten hasi naiz, inguruan eragin positiboa lortzeko"**

**A**zken urteotan, parean tokatu zaizkidan egoerak tarteko, ikuspuntu kritikoa asko landu dudala esango nuke, batez ere, egunero egiten ditudan ekintzek nigan eta inguruarengan duten inpaktuaz jabetuz.

Ongi da, bai; ziur zuek ere nekatuta egongo zaretela aldaketa klimatikoa, *fast fashion* (edo euskaraz, moda azkarra) eta bestelako fenomeno ezagunak entzuteaz. Baina nahi eta nahi ez, hau da errealitatea. Askotan gertatu zait, aurrez aipatutako gaien inguruan hitz egiten aritu eta ondo iruditu ez zaidan komentario baten aurrean isilik geratu izana, esandakoaren aurrean argudiatzeko jakintza nahikoa ez dudala pentsatzeagatik. Momentu horien ostean gainera, ez naiz lasai sentitzen, benetan pentsatzen dudana esateko gai izan ez naizelako edo indar falta sentitu dudalako. Izan ere, aldi berean nekatuta nago kontrako norabidean joateagatik edo egoera batzuen aurrean bakarrik sentitzeagatik. Baina, benetan bakarra al naiz?

Artikulu hasieran esan dudana bezala, azken urteotan inguruan eragin positiboa lortzeko hainbat aldaketa egiten hasi naiz: hala nola, gutxiago kontsumitzen edo beharrezkoa soilik erosten (salbuespen batzuekin noski); posible den heinean, moda jasangarria sustatzen; inpaktu positibo eta jasangarria eragiten duten proiektuetan lan egiten; haragi gutxiago kontsumitzen; balore hauek sustatzen dituzten ekintzaile berriak lagun eta familiartean ezagutzera ematen...

Hala ere, oraindik asko dut ikasteko, noski, eta gainera badakit egoera pribilegiatu batetik hitz egiten dudala. Baina gai hauen inguruan hamaika aurreiritzi eta estigma negatibo daudela iruditzen zait, eta argi dago, aitzakiak jartzea asko gustatzen zaigula gure jarrera erosotik ez irtetzeagatik. Ez da hala?

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia* eta *Eskutitzak* ataletan adierazitako enantzikizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANA* eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

-----

### Zinema komertzialetan euskararen presentzia ez da %2,5era iristen

Pantailak Euskaraz ekimenak eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak Hego Euskal Herriko zinemetan dagoen euskararen presentzia neurtu dute: zinema komertzialetan euskararen presentzia ez da %2,5era iristen. Euskaldunen hizkuntza eskubideen urraketa sistemikoa dela garbi dago.

Adibide esanguratsu bat: 2023 osoan Paul Urkijoren *Irati* fantasiako filma izan da zinemetan euskaraz estreinatu den fikziozko film bakarra, euskarazko hainbat dokumental eta haurrentzako nazioarteko film batzuk euskarara bikoiztuta estreinatu badira ere. Salaketa bat baino gehiago jaso dira *Irati* filmaren gaztelerazko emanaldi gehiago egon direlako, eta batzuk euskaraz ikusi nahi arren, gazteleraz ikusteko aukera bakarrik izan delako.

Emandako datuen arabera, desoreka nabarmena ikus daiteke hizkuntzari erreparatuta. Gazteleraz edo gaztelerara azpidatzita, 564 film eman dira; euskaraz estreinatu diren filmak, aldiz, hamalau izan dira. Hamalau horietatik lau izan dira jatorriz euskarazko bertsoan eskaini diren euskal ekoizpenak; hamar, Zinema Euskaraz programaren bitartez euskarara bikoiztuta eskaini diren haurrentzako filmak, eta jatorri elebidunak edo eleanitzak diren beste hiru ekoizpen ere izan dira.

Egoera honen aurrean, neurriak eskatu dira, bereziki EAEko 10/1982 Legeak jasotzen duena betetzea: "Jaurilaritzak neurriak hartuko ditu bi

hizkuntza ofizialen arian-arian berdintzeraino, besteak beste, zineman eta ikus-entzunezko grabazioetan". Pantailak Euskaraz eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak adierazi dute lege horrek 40 urte bete dituela eta bertan jasotzen diren artikulua asko oraindik ez direla betetzen.

Legeak betetzea erakunde publikoen ardura da, eta herritar guztien hizkuntza eskubideak zinemetan ere babesteko neurriak hartzea beharrezkoa da. Bi eragile horiek, euskarazko eskaintzarik ez dagoenean, [euskararentelefonoa.eus](http://euskararentelefonoa.eus) bitartez dagokion salaketa jartzera dei egin dute. Era berean, Zinemak Euskarazek Interneten martxan duen sinadura bilketan atxikimendua emateko gonbidapena ere egin die herritarrei.

Z.A.



**LAGUNAK**  
colchonería textil hogar

**MERKEALDIA**  
**%35eko deskontua**  
**etxerako neguko ehungintzan!**

**Etorri, bisita gaitzazu!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

☎ 943 744 112 📞 688 655 658



### **Merkatu plazako beiratea ez dute mantenduko eraikin berrian:**


"Merkatu plazan dagoen beiratea eraikin berrian jartzea ez dagoela aurreikusita erantzun zuen Udalak BARRENEKO atal honetan, eta ez zait ondo irudit. Leku horretan izan ez arren, beirate hori beste hainbat leku atontzeko erabiltzeko modukoa da. Hamaika horma daude hutsik, eta horrekin dotoretu daitezke. Hainbeste urtetan merkatuan egon den altxor eder hori egun batetik bestera kentzea tristea da. Gizarte kontsumista baten ispilua da hori, zaharra kendu eta berria erosi. Gero herritarroi birziklatzea eskatzen zaigu! Udalak eredu izan behar luke horretan, eta elementu asko berrerabili daitezke, suntsitu eta zaborretara bota beharrean".



### **Ubitarten eta Bolatokian zuhaitzak moztu dituzte azken egunotan.**

**Zer dela eta?:** Herritar batek kezka

agertu du herriko hainbat gunetako zuhaitzak moztu dituztelako. Udalak ondorengo erantzuna eman du: "Elgoibarko Udalak, udalerriko paisaia urbana eta naturala mantentzeko eta hobetzeko, herriko hainbat eremutan zuhaitzak ordeztzeko eta birlandatzeko plana abiatu du. Barkamena eskatu nahi diegu herritarrei Ubitarte - Arrillaga inguruko zuhaitzak moztetari buruzko alde aurreko jakinarazpenik ez egiteagatik eta etorkizuneko jarduketetan gardentasuna eta informazio-fluxua hobetzeko konpromisoa hartzen dugu".



### **Mintxetako kirol gune guztian al dago debekatuta txakurrekin ibiltzea?:**

Txakur-jabe batek jakin nahi du Mintxetako tabernara, esaterako, joan daitekeen txakurrekin kafe bat hartzera edo gune guztian dagoen debekatuta txakurrak sartzea. Udalera jo du BARRENEK, eta ondorengo erantzuna jaso du Hirigintzatik: "Araudiari jarraituz, Kirol instalakuntzetan ezin da ez txakur ez beste animalirik sartu (katuak, adibidez), besteak beste, kirolarien segurtasuna, erosotasuna eta instalakuntzen higiena bermatzeko. Arau hau Mintxetako kirolgune guztirako da. Taberna bera kirolgunearen barruan dagoenez, tabernari ere eragiten dio".



## Aniztasun funtzionala duten gazteen inklusiorako 'Elgoibar mugimenduan' egitasmoa abiatu dute



**E**lgoibarko Udalak, Batera Aske Kooperatiba Elkartearekin lankidetzan, dibertsitate funtzionala duten gazteentzako *Elgoibar Mugimenduan* programaren ikasturte berria abiatu du. Proiektu honek Batera Aske helburu sozialeko kooperatiba gisa eratzea ekarri du, eta 2024an aisialdirako hainbat jarduera egingo dituzte Elgoibarren, gazte horien inklusioa sustatzeko. Lehenengo saioa joan den igandean egin zuten, Aita Agirre kulturgunean. Jarduerak bi astean behin egingo dituzte.

Batera Aske proiektua elkarte gisa finkatu da eta kooperatiba bihurtu dute, dibertsitate funtzionala duten nerabe eta gazteei zuzendutako sormen eta mugimendu jarduerak antolatzeko helburuarekin. Ekimen honen

helburua da Euskal Herriko hainbat herritako gazteen artean adiskidetasuna eta sozializazioa bultzatzea. Une honetan Zarautz, Aretxabaleta, Arrasate, Eibar, Elgoibar eta Iruñeko udalekin ari dira elkarlanean. Elgoibarren, zazpi parte-hartzaileko hasierako taldea osatu dute, eta iazko azaroan egin zuten lehen familia-topaketa. Nuala elkarteko gurasoek ere parte hartu zuten, eta topaketa horrek esperientziak eta beharrak partekatzeko balio izan zuen. Elgoibarko Udalak eta Batera Aske Kooperatiba Elkarteak *Elgoibar Mugimenduan* ekimenean parte hartzera gonbidatu dituzte elgoibartarrak. Parte hartu nahi dutenek Udaleko Gazteria sailarekin harremanetan jarri behar dute: 943 741 050 / [gazteria@elgoibar.eus](mailto:gazteria@elgoibar.eus)

### Txankakuako Eguberrietako zozketako zenbaki batzuen irabazleak ez dira agertu oraindik

Txankakua merkatarien elkarteak 1.800 euro zozkatu zituen Eguberrietan erosketa bonotan; 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari zeuden guztira. Horietako batzuk dagoeneko agertu dira, baina arduradunek jakinarazi dute oraindik zenbaki batzuen jabeak ez direla agertu. Saridunak agertzeko epea otsailaren 9an

amaitzen da. Hauek dira oraindik agertu gabe dauden zenbakiak:

- 68.363 / 100 euro (Ordezko zenb. 89.819)
- 48.543 / 100 euro (Ordezko zenb. 84.918)
- 35.671 / 100 euro (Ordezko zenb. 77.677)
- 43.078 / 100 euro (Ordezko zenb. 31.844)

## 60 urtetik gorakoen iritzia jaso nahi du Atxutxiamaikak

**B**elaunaldien arteko harremanak landu nahi ditu Elgoibarko Izarraren Aisialdi Saileko Atxutxiamaika taldeak, eta horretarako, 60 urtetik gorako herritarren iritzia ezagutu nahi ditu. Besteak beste, 60 urtetik gorakoen aisialdia nolakoa den ezagutu nahi dute, zer egiten duten denbora librean, zer atsegin duten... Horrez gain, ume eta nerabeekin nola harremantzen diren ere jakin nahi dute, eta galdetuko diete ea ikusten duten beharrik belaunaldi desberdinetako bizilagunak harremantzeko. Informazio hori jasotzeko lan saioa antolatu dute otsailaren 20rako, eta parte hartzera gonbidatu dituzte 60 urtetik gorakoak. Parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute 943 741 746 telefonora deituta edo whatsapp bidalita. 09:30etik 11:30era izango da saioa, Aita Agirreko areto nagusian, eta ondoren, hamaiketako egingo dute.

### 60 URTETIK GORAKO PERTSONEN IRITZIA JASO NAHI DUGU

GAIA: BELAUNALDIARTEKO HARREMANAK. ?

- ZER EGITEN DUZU ZURE DENBORA LIBREAN?
- ZEIN HARREMAN MOTA DUZU UME ETA NERABEEKIN?
- BEHARRA IKUSTEN AL DUZU BELAUNALDI EZBERDINEN ARTEKO PERTSONAK HARREMANTZEKO?



**OTSAILAK 20**

**09:30-11:30, LAN-SAIOA**

**11:30-12:30, HAMAIKETAKOIA**



**AITA AGIRRE KULTURGUNEA**  
**ARETO NAGUSIA**

**943 74 17 46** 

**(DEIAK ETA WHATSAPPA)**





### Patxangoi taldeak kontzertua emango du gaur Kultur Kafean, Bosko Egunaren harira

Bosko Eguna ospatuko dute gaur irakaskuntza ertaineko ikastetxeetan, eta egun osoan zehar izango dituzte ekitaldiak. Kirol probak, antzerkiak, patata tortilla lehiaketak eta bestelakoak egingo dituzte IMHn eta Institutuan, eta egunari amaiera emateko, kontzertua antolatu du Kultur Kafek. Patxangoi Elgoibarko musika taldeak emango du kontzertua, 19:30etik aurrera. Elgoibarko gazte talde batek sortu zuten Patxangoi taldea, 2023an.

Gaizka Uranga taldekideak emandako azalpenen arabera, La Roita erronkaren egunerako sortu zuten Patxangoi elektrotzaranga iazko uda partean, eta sanbartolomeetako Gazteen Egunean egin zuten debut ofiziala jendaurrean. Pare bat zuzeneko egin zituzten iaz, eta indartsu hasi dute 2024a. Urtarrilean bi kontzertu emango dituzte Barakaldon: joan den barikuan eman zuten aurrenekoa eta bihar izango



da bigarrena. Otsailerako ere saio bat dute hitzartuta, Sondikan.

Amaia Sasiain (ahotsa), Danel Legorburu (ahotsa), Markel Uranga (baxua), Aitor Asenjo (gitarra), Joseba Astigarraga (baxua), Unai Arregi (tronboia), Ander Torquemada (tronpeta), Gaizka Uranga (kaxa), Iker Aranburu (perkusioa) eta Mikele Albisu teknikariak osatzen dute taldea.

# Pedro Mugurutzako eskolaren egoera ezagutzeko txosten teknikoa egingo du Elgoibarko Udalak



Elgoibarko Udalak jakinarazi du txosten tekniko bat egingo dutela, Pedro Mugurutzako eraikinari eta inguruari buruzko erabakiak "oinarri handiagoarekin" hartu ahal izateko. Txosten hori idatzi ondoren, gobernu-taldearen eta oposizioko alderdiaren esku utziko dutela jakinarazi dute Udaletik, eraikinean zein inguruan egin beharreko jarduketak proposatu eta definitu ahal izateko. Udalak esan du funtsezkoa dela herritarrekin elkarlanean aritzea eta informazioa gardena izatea, ondarearekin eta hiri-garapenarekin lotutako erabakiek "eragin nabarmena" dutelako. Ion Zubiaurre Hirigintza arduradunak nabarmendu du gobernu taldeak parte-hartze prozesuaren emaitza eta txosten teknikoa kontuan izanda hartu nahi dituela erabakiak. Udalak parte-hartze prozesu bat egin zuen 2022an, eta iritzia emateko aukera eduki zuten heritarrek: "Bizilagunek ingurua eraistearen eta berroneratzearen aldeko apustua egin zuten, bizilagunentzako espazio publikoa, aparkalekua eta ibaiari protagonismo handiagoa emanez", azaldu dute Udaletik.

## Kandelaria eta San Blas Eguneko ospakizunak, otsailaren 3an

Datorren barikuan, otsailaren 2an, Kandelaria Eguna izango da, baina egun horretan ez dute elizkizunik egingo Elgoibarren. Kandelak, San Blas opilak eta elikagaiak bedekatzeko meza San Blas Egunean egingo dute, otsailaren 3an, 10:00etan, San Bartolome parrokan.

## Hiru hitzaldi antolatu dituzte 'Treba Gurasoak' egitasmoaren barruan

Elgoibarko Udalak hiru hitzaldi antolatu ditu *Treba Gurasoak* ekimenaren barruan, Foru Aldundiarekin elkarlanean. Hitzaldi horien helburua da familiei funtsezko tresnak eta ezagutzak eskaintzea, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio eraginkorrari lotutako gai garrantzitsuei heltzeko. Lehenengo hitzaldia lagunen arteko harreman osasungarri buruzkoa izango da, seme-alaben emozioari buruzkoa bigarrena eta hirugarrena buruko osasunari eta nerabezeroari buruzkoa.

**1. 'Harreman osasuntsuak lagun artean'.** Otsailaren 7an izango da, 18:00etan, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian. Nerea Mendizabalek emango du, eta euskaraz izango da. Gurasoek seme-alaben lagunartean duten zereginari buruz hausnartzea, gatazketan noiz eta nola esku hartu argitzea edo seme-alabekiko gatazketan laguntzeko baliabideak eskuratzea izango dira helburuak. Hitzaldi honetarako izena emateko epea zabalik dago. [www.labur.eus/07](http://www.labur.eus/07) atarian, 943 741 050 telefono zenbakian edota [gazteria@elgoibar.eus](mailto:gazteria@elgoibar.eus) helbidean eman daiteke izena.

**2. 'Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak'.** Donna Apellaniz Nietok emango du saioa, gaztelaniaz. Otsailaren 28an izango da, 17:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan. Hitzaldi honetan seme-alaben emozioak kudeatzeko eta zaintzeko kontuan izan beharrekoa landuko dute, eta familiaren osasun emozionala zaintzeko tresnak azalduko dituzte.

**3. 'Osasun mentala eta nerabeak'.** Apirilaren 16an izango da, 17:30ean, Aita Agirreko areto nagusian. Estibaliz Ansotegik emango du, euskaraz. Deserosotasun, antsietate eta jazarpen-egoerak detektatzeko ezagutzak ematea, eta balizko jazarpen-egoerei erantzuteko trebetasunak eta estrategiak lantzea izango da saioaren helburua.



# Egoera txarrean dauden arbolak ordezkatu eta berriak sartzeko plana du Elgoibarko Udalak

**E**goera txarrean dauden zuhaitzak kendu eta horien ordezkari bertako espezieak sartu nahi ditu Elgoibarko Udalak udalerriko hainbat lekutan eta Lorezaintza zerbitzukoak hasita daude lan horretan, Urazandin, San Roken, Basarten, Bernardo Ezenarron, Pedro Mugurutzan, Uparitzagan, Bolatokin, Arrillaga kalean eta Pista beltzean. Bestalde, herriko beste hainbat gunetan landaketa berriak ere egingo dituzte: Altzolan, zazpi haltz landatuko dituzte Bainuetxeko

Zumardiko aparkalekuan; Urazandin, lau tulipero landatuko dituzte Haur Hezkuntzako eraikinaren inguruan; Bernardo Ezenarron, bost urki gaixo aldatuko dituzte eta kentzen duten arbolako beste bat sartuko dute; Aita Agirre plazan eta Toletxen ere hiru arbola landatuko dituzte, gaixo dauden beste hiru kenduta; Ibaite industrialdean 50 zuhaitz landatuko dituzte, eraiki berri duten harrizko lubetaren inguruan, eta Lerun industrialdean, hiru astigar ordezkatu dituzte.

## 2024ko egutegi fiskala kaleratu du Elgoibarko Udalak

2024. urterako zerga egutegia publikatu du Elgoibarko Udalak, eta diru-sarrera publiko horiek ordaintzeko epeak zehaztu ditu. Ordainketa epeak egutegian adierazitako egunean bukatuko dira, eta egun hori jai-eguna baldin bada,

hurrengo lanegunera arte luzatuko da ordainketa epea. Etxe guztietara banatu dute egutegia eskuorri formatuan, eta nahi izanez gero, online kontsultatzeko aukera ere badago, Udalaren webgunean ([elgoibar.eus](http://elgoibar.eus)).

## Zuhaitz landaketa eguna antolatu du Mendaroko Udalak otsailaren 4rako eta parte hartzera deitu du Arno guraso elkateak

Mendaroko Udalak, Itziarko Auzo Udalarekin eta Zestoako Udalarekin elkarlanean hasitako ekimenaren barruan, zuhaitzak landatuko dituzte Mendaron otsailaren 4an, eta ekimenean parte hartzera deitu du Arno guraso elkarteak. Mendaron, Goikola baserriaren inguruko sail batzuetan egingo dira landaketak. Herriko enparantzatik 2,5 kilometro ingurura dago lur saila, Plaza auzotik gora, erreka ondoan. Horregatik antolatzaileek arropa eta oinetako eroak eramateko eskatu diete herritarrei, bai eta ura ere. 10:00etan jarri dute plazan elkartzeko ordua, oinez joateko. Tresneria antolatzaileek eurek banatuko dute lekuan bertan. Ekimen beraren barruan, bezperan, hilaren 3an, Zestoa egingo dute zuhaitz landaketa. Han ere, plazatik abiatuko dira, 10:00etan, eta nahi duen orok parte hartu dezake.

## San Bizente Eguna ospatu dute Azkuen



Azkue auzoko bizilagunek San Bizente Eguna ospatu zuten astelehenean, urtarrilaren 22an. San Bizenteren irudia eskutan hartuta prozesioa egin zuten lehenengo, San Rokeko ermitaren inguruan, eta ondoren meza izan zuten. Meza ostean salda eta txorizoa banatu zizuten, bertaratu zirenen artean. San Bizente 1597ra arte izan zen Azkue auzoko zaindaria, eta horregatik dute auzotarrek San Bizente Eguna ospatzeko ohitura. XVI. mendeko izurrite beltzaren ondorioz hasi ziren San Rokeri babesa eskatzen, baina ordura arte ermita bera ere Azukeko San Bizente ermita bezala ezagutzen zen herrian.

## ARNALDO OTEGI

'Bateragune auzian' epaitua.

EH Bilduko koordinatzaile nagusia

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak amaitutzat eman zuen joan zen eguaztenean *Bateragune auzia*. Espainiako Auzitegi Gorenak eskatutakoaren kontra, *Bateragune auziko* epaiketa berriro ez egitea proposatu zuen Juan Carlos Campo Auzitegi Konstituzionaleko magistratuak eta epaimahaiko 11 magistratuetatik zazpik auzia bukatzearen alde bozkatu zuten, epaiketa berriro egitea "neurritz kanpokoak" litzatekeela arrazoituta. Bukatu da, beraz, duela hamabost urte Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile zen Baltasar Garzonek hasitakoa. Legez kanporatutako Batasuna alderdia ETaren aginduz berriz sortu nahian aritzea egotzita atxilotu eta epaitu zituzten bost lagunak, eta osorik bete zuten zigorra. 2018an Estrasburgoko Auzitegiak epaiketa ez zela inpartziala izan ebatzi zuen gero.



*“Gauza batzuk ezin dira erreparatu, baina gutxienez justizia poetikoa egin da, 15 urtera”*

**Hamabost urte geroago, amaitutzat eman dute 'Bateragune auzia'. Zer sentitzen duzu?**

Poza, porrot egin dutelako euren eginahalean. Guk hasieratik izan dugu garbi oinarri politiko garbia zuen auzia izan dela hau. Helburu politiko batekin agindu zuten polizia operazioa eta epaitu gintuzten, eta jendeak garbi izan behar du hori: zirkulazio politikotik kendu nahi gintuztelako sortu zutela muntaia judizial hau guztia. Bazekiten ezker abertzalearen estrategia aldatzeko lanean genbiltzala, baina estatuan baziren sektore batzuk ez zutena nahi inondik inora ETak jardun armatua laga zezan. Orain eskandalizatu egiten dira hori entzutean, baina duela gutxi entzun diot Josep Borrelli esaten [Atzerri politikarako EBren burua] Israelek Hamas finantzatu zuela Palestinako Aginte Nazionalaren kontra egiteko; beraz, gauza hauek gertatzen dira munduan. Ezker independentistaren askapenerako potentzialtasuna neutralizatu nahi izan zuten, baina porrot egin dute.

**Konstituzionalaren epaia bera "ezohikoa" izan dela nabarmendu duzu.**

Bai, oso arraroa delako gu euskal herritarrek eta abertzale independentistak izanda, juje

espainiarrek guri arrazoia ematea. Baina hain zen eskandalagarria Auzitegi Gorenak egindakoa, garbi genuela ezinezkoa zela Auzitegi Konstituzionaleko jujeek hura babestea. Hala ere, Iñigo Iruin abokatuak sarri ohartarazi izan digu juridikoki posible izan ez arren, gurekin ari direnean dena dela posible. Horregatik esaten dut gutxienez zerbait positiboa iritsi zaigula Espainiako auzitegi batetik.

**'Zenbat aldiz lapurtzen diguten herri bat eraikitzeko denbora. Zenbat aldiz asmatu ohi duten atzera itzultzeko aitzakia bat...', dio**

## **'Bateragune auzikoei' elkartasuna agertzeko zenbait artistak sortu duten kantuak.**

Euskaldunok mendeak daramatzagu Damoklesen ezpata gainean dugula. Energia pila xahutu arazi digute, errepresioa erabilita. Lapurtu dizkigute herri bat eraikitzeke denbora eta energia. Baina, zorionez, orain, bai ezker independentistaren partetik, bai eta beste askoren partetik ere, badago beste ikuspegi bat. Orain garbi dugu, lehenengo eta behin, gure herria eraiki behar dugula, ahalik eta energia gutxien xahutuz beraiei erantzuten. Baina egon zen garai bat ezin genuena hori egin, etengabe egon behar ginelako sarekadei, torturei, kartzelaldiei... aurre egiten. Horrek errepresioaren kontrako kontzientzia garatzeko balio izan dio herri honi, eta garbi ikusten da hori orain ere, Palestina herri zapalduarekiko erakusten dugun elkartasunean adibidez.

## **Egin dezagun atzera begirakoa. Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitu zintuzteten 2011n, eta 8 eta 10 urte arteko zigorrak ezarri zizkizuten. ETAk jardun armatua laga zuen gero, 2011ko urrian, eta 2012an, Auzitegi Nazionalak emandako epaia berretsi zuen Gorenak, zigorrak murriztuta. Zer rol jokatu du Gorenak prozesu osoan zehar?**

Hemen badago gauza bat belaunaldi berriek jakin behar dutena. Franco hil zenean haren mende zegoen jurikatura guztia, kolpetik, demokrata bihurtu zen. Miraria! (kar-kar). Batetik dago hori, eta bestetik, espainiar estatuan, eta gainerakoetan ere bai ziurrenik, juridikatura oso familia arteko kontua izan dela betidanik; oso kontu egozentrikoa. Oso ohikoa izan da familia berean juje asko izatea. Eta bi faktore horiek batuta ematen dute daukaguna: demokratikoa ez den jurikatura bat, kasta bat izaten ohitua dagoena. Eta Auzitegi Gorenean hori oso nabarmena da. Kataluniako prozesuan ere oso argi ikusi zen abangoardia papera jokatu zutela Kataluniaren independentzia eragozteko. Gure kasuan ere, antzera. Auzitegi Nazionalak hamarna urteko kartzela zigorrak ezarri zizkigun, dena ETA da tesi horren baitan, eta Gorenak tesi hura berretsi zuen, baina zigorrak murriztu zizkigun, ETAko zuzendaritzakoak ez ginela esanda. Bost epaile ziren epaimahai hartan eta hiruk bozkatu zuten gure kontra eta bik alde. Konstituzionalean, berriz, 11 epaileetatik zazpik bozkatu dute auzia bukatzearen alde, eta lauk

kontra. Beti egon da eztabaida epaileen artean, eskandalagarria izan delako muntaia guztia.

## **2016ko martxoaren 1ean laga zintuzten libre, eta 2018ko azaroan, zigorra beteta zenutela eta bostok kalean zeundetela, etorri zen Estrasburgoren epaia. Espainiako justizia sistemari kargu hartu zion, ez zirela inpartzialak izan esanda. Zenbateraino izan da erabakigarri Estrasburgo prozesu honetan?**

Estrasburgok emandako epaiak betetzera derrigortuta daude estatuak, askok, sarri, betetzen ez dituzten arren. Gure kasuan, epaiketa bidegabea izan genuela ebatzi zuen Estrasburgok, Angela Murillo epailea ez zelako inpartziala izan, eta jakina, justizia egingo bada, oinarri-oinarriko baldintza da hori. Eta esan zuen, baita ere, guri zegokigula erreparaziorako modurik egokiena zein zen esatea, eta beraz, guk eskatu ezean, ez zegoela modurik epaiketa berriro egiteko.

Estrasburgoren epai hari bide emateko asmoz, gure abokatuak babes helegitea jarri zuen gero, gutxienez epaiketan jasotako zigorrak indargabetu nahirik. Eta hor sartu zen berriro jokoan Auzitegi Gorena. Lehenengo, 2020ko udan, ordura arteko zigorrak bertan behera laga zituen, guk eskatu bezala. Auzia itxiztat emateko moduan zen beraz, Estrasburgok esana zuelako aurrez guk eskatu ezean, ez zegoela modurik epaiketa berriro egiteko, eta guk ordurako zigorrak beteta genituen, ez genuelako eskatu. Tranpa egin zuen Gorenak.

## **AVT-Verde Esperanza biktimen elkarteak eskatu zuen auzia zabalik mantentzeko?**

Bai. Saiatu zen Auzitegi Nazionalen lehenengo, baina ez zuen lortu, eta lortu zuen gero Auzitegi Gorenean. Fiskalak AVTren tesiekin bat egin eta epaiketa berriro egitea eskatu zuen. [2020ko abenduan], eta etorri zen Pablo Llarena epailea, Kataluniako prozesuaren auzian instrukzioa egin duena, eta onartu zuen epaiketa berriro egitea. Eta hor dator beste kontu larri bat, Zuzenbideaz zertxobait dakien orok dakielako ezin dela pertsona bat bi aldiz epaitu auzi beragatik. Norbaitek sinistu dezake Auzitegi Goreneko presidentek ez dakiela hori? Eskandalua da! Tranpa egin zuen, baina espainiar kulturaren tranpa egitearena genero literario bat bihurtu zuten bere garaian, eta oso ohikoa dute.

[Babes helegitea aurkeztu zuen gero defentsak Auzitegi Konstituzionalean auzi beragatik bi aldiz

epaitua ez izateko eskubidea urratzen zelakoan, eta lortu dute Konstituzionalak frenoa ematea].

**Kaltea egina dago. Kalte-ordainak eskatzeko bidea aztertzen ari zarete, baina horretarako, Auzitegi Goreneko areto batek akats judiziala izan dela adierazi behar du. Orain artekoak ikusita, zer espero daiteke Gorenetik?**

Nabarmena da akats judiziala egon dela, eta uste dugu onartuko duela, baina ikusi egin behar!. Prebrikazio kate bat egon da hemen, baina euren menpe gaude, akats hori egon dela onartu ezean guk ez daukagulako kalte-ordainak eskatzerik. Baina ez dugu etsiko.

**Estatuari zuzendu zatzaizkio. Zer esateko?**

Pere Aragones Kataluniako Generalitateko presidentek zioen espainiar estatuak dena egin duela Katalunian independentismoa gelditzeko, eta zer esanik ez hemen, Euskal Herrian, gehituko nuke nik. Milaka pertsona torturatu dituzte, jazarri gaituzte, jendea hil dute... Eta nire galdera da: Ikasiko al dute bide horretatik ezingo dutela independentismoa gelditu eta komeni zaiela beste alternatiba bat bilatzea? Bada ordua onartzeko Euskal Herria nazio bat dela eta erabakitze eskubidea duela. Elkarbizitzaren inguruan ere hausnartu behar lukete. Bake eta konponbide agertokira iristeko egin behar genuela uste genuena egin dugu guk. Guk aitortu genuen gure ardura sekula gertatu behar ez zuen sufrikarioan, baina estatuak noiz onartu behar du Espainiaren batasuna babesteko eragin duen min guztia? Eskatzen diogu gogoeta hori egiteko, baina ez alor penalean jazarpenik planteatzeko, haiek gurekin egin duten bezala, baizik eta elkarbizitzaren alde egiteko. Nik uste dut helduko dela momentu hori.

**Nola bizi izan dituzu hamabost urte hauek?**

Gogorra izan da oso, bereziki etxeokengatik. Albiste bat sortzen den aldiro, okerrean pentsatzen jarri behar zara eta horrek sekulako tentsioa sortzen du. Ama ere galdu nuen kartzelan nengoela. Guk garbi geneukan zertan ari ginen, eta bagenekien atxilotuak izateko arriskua geneukala, ezin eramana zitzaielako ETaren indarkeria armatua herri honen ekuazio politikotik desagertzea, baina hala ere, gogorra da. Pozik nago hasi genuen bide hura gero sustatu zelako eta esan dezakegulako gaur hobeto bizi garela. Oraindik gauza asko falta dira konpontzeko eta

*"Euskaldunok mendeak daramatzagu  
Damoklesen ezpata ginean dugula.*

*Energia pila xahutu arazi digute,  
errepresioa erabilia. Lapurtu dizkigute  
herri bat eraikitze denbora eta energia"*

egiteko, baina uste dut hor ibili ginenok pozik gaudela. Gauza batzuk ezin dira erreparatu, baina gutxienez, justizia poetikoa eginda, 15 urtera.

**Gauza batzuk aldatu dira. Zer ikusten duzu zure egoeratik?**

Iruditzen zait estatuaren presentzia hori lausotu egin dela gure herri honetan. Egia da egoera politikoak beste era batera eboluzionatu duela estatuan, eta bai independentismoak eta baita Eusko Alderdi Jeltzaleak ere paper bat jokutzen dugula Madrilen, baina funtsean, eta estrukturaliki, ez da ezer aldatu. Herri honek jarraitzen du zatitua egoten, ez da onartzen gure naziotasuna; ez zaizkigu errespetatzen eskubideak... Asko hitz egiten da orain identitateez, baina nik beti esaten dut identitate asko daudela Euskal Herrian, baina arriskuan dagoena gurea dela. Ezin ditugu ahaztu bi gauza: Euskal Herria zazpi lurraldez osatuta dagoela eta nazio bat dela, eskubide guztiekin. Uste dut orain aukera dugula urratsak egiteko nazio ikuspegitik, beti ere herri interesekin jokutzen badugu, eta ez alderdi interesekin.

**Euskaraz bizitzeko eskubidea ez digute errespetatzen, ez. Zer duzu esateko euskararen kontrako oldarraldi judizialaz?**

Ezin dut ulertu, adibidez, zergatik onartu behar dugun juje batzuek Madrilen erabakitzea udaletan ezin ditugula barne-dokumentuak euskara hutsean egin. Gauza horiek duela 30 urte ez ziren pasatzen, erreazio bat zegoelako. Eraso etengabea ari zaizkigu eta erreazioan behar dugu, dauzkagun gauzak asko kostata lortutakoak direlako. Beharbada ez dugu jakin belaunaldi berriei transmititzen zer egin duen herri honek bere hizkuntza nazionala mantentzeko. Iruditzen zait nazio edo herri kontzientzia hori lausotzen ari zaigula, eta hori arriskutsua da, beraiek oso sendo daudelako euren euren, eta baliabide guztiak dituztelako euren hauspotzeko. Euskara gure

proiektu nazionalaren ardatzean jarri behar dugu. Eta horrekin ez naiz ari esaten Euskal Herri elebakarra nahi dugunik, orain ere elebakarrak diren bakarrak hori izatea leporatzen digutenak direlako. Ahalik eta hizkuntza gehien hitz egitea nahi dugu, baina ardatzean euskara jarrita. Elgoibarren, esaterako, jende askok egin du asko euskaragatik, bereziki garai gogorrenetan, eta esker onez eta haiekiko errespetuagatik bakarrik, egin beharko genuke ahalegin handiago bat.

### **Arriskuan ikusten duzu euskal identitatea hortaz.**

Bai. Iruditzen zait bere garaian ongizatearen nazionalismoa sustatu zuela hemen alderdi batek, eta horrekin gelditu zela jende asko. Eta ongizatea garrantzitsua da, bai, baina bestea bazter laga gabe, herri honen identitatea arriskuan dagoelako. Edo sustatzen ditugu tresna burujabeak gure arazoei aurre egiteko, edo akabo! Bere garaian, horrek sakrifizio handia eskatzen zuen, baina orain, badugu aukera alaitasunez egiteko. Eta baliatu behar dugu une hau, Espainian nazioen inguruko eztabaida hasiko dutelako, eta berdin Frantzian ere, esaten ari direlako kanakiar herriarekin eta Korsikakoarekin konstituzioa aldatuko dutela. Beraz esan dezakegu Euskal Herri osoan, bere luze-zabalean, posible izango dela nazioaren inguruko gogoeta abiaraztea.

### **Zein litzateke lehenengo pausoa?**

Euskaldunon artean ados jartzea.

### **Ez dirudi erraza.**

Oso erraza da, alderdi interesak beste guztiaren gainetik jarriko ez balira. Iruditzen zait gehiengo handi batek aitortzen duela nazio bat garela. Eta nazio bat bagara, pentsatu beharko dugu zer tresna behar ditugun hala funtzionatzeko, XX. mendeko tresnekin ari garelako orain.

### **Urte guzti hauetan mobilizazio asko eta handiak ere egin dira *Bateragune auzia* salatu eta auzipetui elkartasuna agertzeko, baita Elgoibarren bertan ere. Zer esago zenieke herritarrei?**

Izugarri eskertzen diedala gu kalera ateratzeko egindako guztia. Elgoibarren plataforma bat sortu zuten eta lortu zuten askotariko jendea mobilizatzea, eta kartzelatik irten nintzenean, sekulako jendetza batu zen plazan. Kartzelatik irten naizen aldiro igarri dut herritarren beroa. Poza agertu didatenen artean, gainera,



sentsibilitate politiko askotarikoak egon dira, eta horrek ematen dit bidea pentsatzeko badagoela humus nahikoa elkarrekin gauzak egiteko, bai eta erreakzionatzeko gaitasun bat ere, injustizia bat gertatzen denean.

### **Nola ikusten duzu ezker abertzalea une honetan?**

Oso lasai. Askotan aipatzen dugu gu sirimiria garela eta helduko garela. Oso argi dugu nora iritsi nahi dugun, eta oso argi ditugu gure printzipioak. Esaten duguna egiten dugu, eta egiten duguna esaten dugu, eta ez daukagu presarik, ez daukagu jendea ate joka administrazio publikoan lan egiteko, ez daukagu banketxeekin hipotekarik. Hiru probintziatako hauteskundeak datoz laster eta ikusiko dugu zer gertatzen den, baina gu lasai gaude. Garbi dugu guk egingo dugula gora gehien bototan, eta horrek lasaitasuna eta pazientzia estrategikoa deitzen duguna ematen digu. Konbentzituta gaude herri honek nazio mailan urrats bat egin nahi badu, elkarrekin egin behar dugula eta guk bide hori hartu dugu.



## Jose Maria Urbieta Zulaika

2023ko abenduaren 20an hil zen, 99 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## German Pedrosa Alvarez De Arcaya

2024ko urtarrilaren 18an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***“Maitasunez,  
beti gure bihotzetan”***

Etxeokak




## Rosi Gorriti Egaña

Altzola, 1955-12-10  
Denia (Valentzia, Herrialde Katalanak), 2024-1-13

***Izarren hautsa egun batean  
bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean  
noizbait ginaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera  
sortuz ta sortuz gure aukera  
atsedenik hartu gabe:  
lana eginaz goaz aurrera  
kate horretan denok batera  
gogorki loturik gaude.***

Altzolako lagunak



## S.D. Eibar Fundazioaren 'Euskararen Baloia' ekimenean parte hartu dute Elgoibar ikastolakoek



**I**puruako obretan topatutako baloi historiko baten bueltan sortu zuen *Euskararen Baloia* ekimena S.D. Eibar Fundazioak, Eibarko eta inguruko herrietako eskola-umeen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Baloi historiko hori Andres Gorosabel eibartarrak 1899. urtean jositakoa da, Ipuruako auzotarren eskariz. Baloia josteko, baldintza bat jarri zien Gorosabelek auzokideei, Eibarko haurrek euskaraz jolasteko erabiltzea baloia. Eta hain justu ere, historia horixe da klubeko hainbat kidek, tartean gizonzkoen eta emakumezkoen lehen taldeko jokalarik eta entrenatzaileek, eskola-umei kontatzen dietena. 2019an sortu zuten ekimena, eta lau urte hauetan Eibarko eta Ermuko hamar ikastetxetako mila ikasle inguruk hartu dute parte programan. Ekimena, baina Elgoibar eta Mallabiko ikastetxeei ere badago zabalik, eta Elgoibar Ikastolakoak eguaztenean izan ziren Eibarren.

Joseba Etxeberria gizonzkoen lehen taldeko entrenatzaile elgoibartarrak eta Yerai Martin emakumezkoen taldeko entrenatzaileak kontatu zieten istorioa Elgoibar Ikastolatik joandako LH3ko eskola-umei. Aurtengoa *Euskararen Baloia* ekimenaren laugarren ekitaldia izan da, eta berritasunekin hasi dute. Izan ere, parte

hartzen ari diren ikastetxeen artean lehiaketa antolatu dute aurtengoa. Ikastetxe bakoitzak Euskara eta kirola gaiari buruzko proiektu bat aurkeztu beharko du aukeratzen duten modalitate artistikoan (antzerkia, abestia, dantza, ipuin kontaketa, etab.), gehienez ere bost minutukoa. Epaimahai batek aukeraturiko du gero irabazlea, aurkeztutako lanek, originaltasuna, mezu egokia eta Eibar futbol taldearen balioak betetzen dituen kontuan hartuta. Elgoibarko ikasleek bertsoa bat kantatu zuten. Sariak ere zehaztu dituzte, jakina. Lehenengo saria eskuratzen dutenek Atxabalpera bisita egiteko aukera izango dute. Eibar futbol taldearen autobus ofizialean egingo dute, gainera, Atxabalperako joan-etorria, Pantxikarekin, eta han gizonzkoen lehen taldearen entrenamendua ikusteko aukera izango dute, bai eta taldeko jokalariekin partida bat jokatzeko ere. Eta bigarren saria armaginen lehen taldeko jokalarik guztiek sinatutako baloia izango da.

Horrez gainera, baina, parte hartzen duten ikastetxe guztiek bisita egingo dute Ipuruara, eta bisita bakoitzeko, Eibar futbol taldearen kamiseta bat zozkatuko dute antolatzaileek, bai eta gizonzkoen nahiz emakumezkoen lehen taldeen partidetara joateko gonbidapenak ere.




---

## MANEX BERISTAIN

Hezitzailea

---

 Ainhoa Andonegi

Minbiziaren ondorioz emaztea galdu zuen 2017an Manex Beristainek (Azpeitia, 1977). Dolu bikoitza gainditu behar izan zuen, berea eta ama galdu zuen bi urte eta erdiko semearena bereziki. Dolu prozesu horretan semearekin hitz egiteaz gain, marratzu, jolastu eta idatzi egin zuen. Barrena husteko sortu zuen hein handi batean 'Azken galdera amari' izeneko liburua, baina baita beste askorentzako lagungarri izan zitekeela pentsatuta ere. Umeekin heriotza lantzeko gida modukoa da sortu duena, helduentzat oso erabilgarria izango dena umeak heriotzari buruzko galderak egiten hasten direnerako. Ipuinaren edukia 6 urtetik aurrerako haurrentzat prestatuta dago, eta kapitulu bakoitzak gaia lantzeko edukiak ditu. Gainera, QR kode bati esker, gai bakoitzari lotutako informazio gehigarria eskuratu daiteke online. Liburua erosteko: Instagrameko Manexen kontuan edo [manexberistain.eus](http://manexberistain.eus) webgunean.

*“Heriotza bizitzaren parte da, eta heriotzari buruz modu naturalean hitz egitea da onena”*



### **'Azken galdera amari' ipuina aurkeztu zenuen atzo Elgoibarko liburutegian. Nola sortu duzue ipuina?**

Ipuin honen abiapuntua nire emazte Mirariren heriotza da. 2015. urteko amaieran minbizia diagnostikatu zioten, eta gaixotasunaren ondorioz, 2017ko maiatzaren 30ean hil zen. Bi umerekin geratu nintzen ni, 9 urtekoa bata eta bi urte eta erdikoa bestea. Dolu prozesua hasi zen une horretan. Niretzako prozesu ezezaguna zen, eta umeek beraiek izan ziren nire mapa dolu horretan.

### **Dolu prozesu bikoitza bizi izan duzula aipatu duzu.**

Bai, batetik nirea, baina aldi berean, bi umeen dolu prozesua eusten eta zaintzen ere egon naiz. Terapeuta baten laguntza izan dut, eta orain dela bi urte umeari ahoz kontatzen nizkionak idazten hasi nintzen. Hitz egin, jolastu, marraztu eta idatzi egin dugu prozesuan zehar, eta idatzi horietatik hamabi bat kapituluko errelato autobiografikoa irten zen. Gai asko landu nituen: minbizia, zaintza, hiltzera doan pertsona agurtzearen garrantzia... Ipuin baten hasiera modukoa izan zen hura, eta horri gehitu dizkiot Ekain nire seme gazteak dolu prozesuan zehar egindako galdera guztiak. Galdera unibertsalak dira: adibidez galdetzen zidan ea ni ere hilko ote nintzen, gaixotzen baginen hil egingo ote ginen...

### **Noiz hasten dira umeak heriotzari buruzko galderak egiten?**

Ekain umea zen ama hil zitzaionean, eta bere lehenengo galdera zera izan zen: 'Ama noiz etorriko da?'. Une horretan egia erantzun nion; ama ez zela inoiz itzuliko. Jakina, orduan ez zuen ulertu. Ekainen dolu prozesua oso interesgarria izan da, eta berari esker gauza asko ikasi ditut. Esaterako, ikasi dut umeek nolako erresilientzia gaitasuna duten bizitzari heltzeko. Lau bat urte zituela, nire arrebaren etxera joaten zenean, ni hilko banintz ea berarekin bizitzerik izango ote zuen galdetzen zion izebari. Bazekien amari gertatutakoa aitari ere gerta zekiokela, eta bere bizimodua ziurtatzeko beharra zeukan. Horrelako detaile pila bat bizi izan ditugu. Ipuinean fikzioa sartu dut: Ekainek amets bat izango du eta niri eginiko galdera horiek guztiak amari egingo dizkio. Gertakari gordina apur bat samurtu egin dut, baina, hala ere, egoeraren gordintasuna agerian laga dut.

*"Ez da ipuin soil bat, ipuinetik harago doa eta gida moduko bat da, umeekin heriotzaren gaia lantzeko"*

### **Nori zuzendutako ipuina da?**

Irakasle eta psikomotrizista moduan ikusten nuen falta zela heriotza modu zuzenean eta pertsona errealekin lantzeko ipuin bat. Ez da ipuin soil bat, ipuinetik harago doa eta gida moduko bat da, umeekin heriotzaren gaia lantzeko. Umeek galdera zehatzak egiten dituzte, eta gida horretan aurki daitezke erantzunak. Ipuina motza da, baina QR kodeen bidez material osagarria eskuratu daiteke. Kapitulu bakoitza xehetu egiten dut online, eta irakurlea hausnarketara gonbidatzen dut.

### **Gurasoek askotan ihes egiten diete umeen galderei. Nola jokatu beharko genukeela uste duzu?**

Nire ustez erantzun egin behar dira galderak, bestela umeak, erantzunik gabe gelditzean, bere errelatoa sortuko du, eta hori arriskutsua izan daiteke. Galdetu badu, erantzuna nahi duelako da, eta ez erantzuteak abandono sentazioa ere sor diezaioke. Joera daukagu heriotzaren gaiari ihes egiteko, heriotza dagoen beldurrik unibertsalena delako. Desagertzea suposatzen du, eraikitako guztia uztea... azken batean izateari uzten diogu eta ez dakigu gero zer datorren. Gai tabua da, sexualitatea edo drogak izan daitezkeen moduan, baina heriotza hor dago, bizitzaren parte da, eta nire ustez, heriotzari buruz modu naturalean hitz egitea da onena. Ez dut esaten informazioa aurreratzeke, baina egiten dituzten galderei erantzutea garrantzitsua da, behar duten neurrian behar duten informazioa emanez, ez gehiago eta ezta gutxiago ere, baina senti dezatela hor gaudela beraien galderei erantzuteko. Baina ez zaie informazio askorik ere eman behar; bereiztu egin behar dira gure beharrak eta beraienak. Eskolan ere beste lanketaren bat egin daitekeela uste dut. Bizitzarako hezten diren moduan, umeak heriotzerako ere hezi daitezkeela iruditzen zait, erremintak emanez. *Zuk zer uste duzu?* estiloko galderekin erantzun diezaiokegu. Edo momentuan zer esan ez badakigu, esan ahal diogu galdera interesgarria dela eta pentsatzen

uzteko, hurrengo egunean erantzungo diogula. Hori bai, hitza bete eta erantzun egin behar diogu gero. Lehen, heriotzak itomena eragiten zidan, baina orain, nire bizi-agendan kokatu dut, eta horrek lasaitasuna eman dit. Badakit iritsiko zaidala; ez dakit noiz, baina edozein momentutan izan daitekeela badakit, eta horrek bizitza beste era batean bizitzera eraman nau. Arazoak erlatibizatzen ikasi dut.

### **Nola eraman duzue dolu prozesua?**

Aita gisa nire lanketa pertsonala egin dut. Asko irakurri dut, terapeutarengana joaten hasi nintzen... Baina horrez gain, semeak zaindu behar izan ditut, eta oso adi egon naiz behatzen ea emozioei lekua egiten zieten, amaren hutsunea nola betetzen zuten... Ez dago errezeta magikorik, eta konparaketak egitea ez da ona. Neuzkan erremintekin, ahal nuen ondoen egin dut. Oso garrantzitsua da errudun sentazioa gainetik kentzea. Liburu honi esker Ekainek emozio pila bat askatu ditu, eta lehen gordetako gauza asko atera ditu. Amari buruz askoz gehiago hitz egiten du orain, negar asko egin du... inoiz ez da berandu. Dolu prozesuan laguntza eskatu behar da, ez da ezer gertatzen laguntza eskatzeagatik. Ni bi semerekin geratu nintzen, eta horrelakoetan tribuaren laguntza behar duzu. Ikasketa prozesu handi bat izan da hau guztia, oso gogorra, baina orain beste fase baten gaude.

### **Zer moduz zaudete orain?**

Gure gorabeherekin, baina bizitzari konektatuta eta bizitzeko gogoz gaude. Horrelako kolpe gogor baten ondoren bizitza beste modu baten bizitzen ikasten da. Komunikabideek zabaltzen dutenari erreparatzen badiogu, bizitzeko gogoia ere galtzen dugu: dena da iluna, ziurgabea.. Non dago argia? Nik argi daukat geure barruan dagoela. *Irteera argia* izeneko testu bat daukat, eta Eñaut Elorrietak ere badu kantu bat non dago irteera argia galdetzen duena. Norberaren barruko lokatzetan dago irteera argia, baina ausardia behar da lokatzetara begiratu eta gure kakak agerian uzteko. Beldurra ematen digu askotan barrura begiratzeak. Hau guztia bizitzeak asko lagundu digu hiruroi eta sekulako konfiantza daukagu gure artean. Hiru eta txakurra gara. Hasieran konparazioak egiten nituen, lau kideko familiei begiratzen nien

*"Gure gorabeherekin, baina bizitzari konektatuta eta bizitzeko gogoz gaude orain. Horrelako kolpe gogor baten ondoren bizitza beste modu baten bizitzen ikasten da"*

etengabe: aita-ama eta umeak. Une batean ez nekien gu zer ginen ere, baina halako batean konturatu nintzen hiru satelite diferente ginela, eta hori onartu nuenean izugarri lasaitu nintzen.

### **Ipuina herriz herri aurkezten ari zara. Zein da aurkezpen horien helburua?**

Helburu nagusia heriotzari buruzko mezua helaraztea da, eta baita ere ipuina saltzea. Aurkezpena ume eta helduentzako egiten dut. Mirari eta Ekainen txotxongiloak egin zizkidan lagun batek eta horiek erabiltzen ditut kapitulu pare bat kontatzeko. Esaldi batzuen bidez aurkezten ditut kapituluak, eta tximeleta txuri batek laguntzen digu bidean. Tximeleta horrek umei heriotzari buruzko galderak egingo dizkie. 40 bat minutuko bidai hunkigarria da, gordina, eta aldi berean, samurra. Negar egiten dute askok, baina jendeak eskertu egiten du. Bakoitzak bere minarekin konektatzen du, baina tarteka barre pixkat ere egiten dugu. Hasieran umeek laguntzen zidaten liburua aurkeztera, baina, orain, apur bat desbinkulatu egin dira. Presente daude aurkezpenetan, baina beste era batera.

### **Barreterapia saioak ere eskaintzen dituzu. Nola hasi zinen horretan?**

Gorputz Hezkuntzako irakasle nintzen garaian konturatu nintzen gorputza lantzeak asko laguntzen zuela gatazkak konpontzen. Amorrua kanporatzeko saioak egiten genituen askotan eta ikusi nuen gorputzak ez duela gezurrik esaten. Formazio saio batzuk egin nituen Bartzelonan eta Madrilan eta badaukat eskuartean proiekturen bat hirugarren adinekoekin, umeekin edota familiekin lantzeko. Orain ipuinarekin nabil, baina helduko diot barreterapiari ere. Barruko umearekin konektatu eta oreka bilatzen laguntzen dit alaitasunaren bideak.

## Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urteurrenari errekonozimendua egin diote filatelia erakusketan



125 urte bete dira aurten Elgoibarren estreinako Lanbide Heziketa eskola martxan jarri zutenetik, eta Altzolatarren Dorretxea elkarteak errekonozimendua egin die aurtengo zigilu erakusketan IMH eta Meka ikastetxei. Mekaren izenean Jose Mari Beristainek jaso zuen Arturo Andradek eginiko oroigarria, eta Alaitz Bastida izan zen IMHko ordezkaria. Zapatuan itxi zuten San Anton Egunaren bueltan antolatzen duten seilu erakusketa. Aurten 15 bildumagilek hartu dute parte: Elgoibarkoak bertakoak eta Euskal Herriko beste herri batzuetatik eta Espainiatik etorritakoak ere bai, eta askotariko gaiak biltzen zituzten zigiluak egon dira ikusgai. Bildumagileei eta Elgoibarko Udaleko Kultura



eta Euskara Sailei eskerrak eman zizkieten elkarteko kideek.

---

### Bederatzi lagun ari dira parte hartzen Jubilatuena Biltokiak antolatu duen antzerki tailerlean




Aktore formakuntzarako Antzerki Tailerra jarri zuen martxan Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak, Taupada antzerki taldearen eskutik, joan den azaroan. Bederatzi lagunek eman zuten izena antzerki tailerlean eta eguenero elkartzen dira, pare bat orduz, antzerkiaren munduan barneratzeko. Joxemari Larrañaga Larra eta Edurne Lasa dira irakasleak eta tailer honen helburua sentitzeko, bizitzeko, pentsatzeko, begiratzeko eta ikertzeko modu berriak eskaintzea dela azaldu dute. Antzerkiaren "esentzia arnastea", euren berbetan.

## Inkestatuen %86,1ek Herriko Antzokia gomendatzen dute

**E**lgoibarko Udalak Herriko Antzokiari buruzko gogobetetze inkesta egin du herritarren artean, eta 151 lagunek erantzun dute. Eraitzen arabera, %71,5ek ontzat edo oso ontzat jo dute programazioa, eta ikuskizunak ere modu berean baloratu ditu %72,2k. %92,7k gainera, Herriko Antzokiko langileen arreta goraiatu dute. Ekitaldien ordutegiei dagokienez, inkestatuen %71,5 ados daude ostiraletako 19:00etako ordutegiarekin, baina %26,5 ez. Ados ez daudenen artean gehienek nahiago dute ekitaldiak beranduago hasita. Era berean, % 14,9 ez daude ados zine emanaldien egungo ordutegiarekin, eta ordutegia aurreratzea proposatu dute, 21:00etara. Eskaintza zinematografikoari dagokionez, % 68,2k ez dute interesik filmak azpituluekin ikusteko, eta % 62,8k nahiago dute filmak jatorrizko bertsioan ez ikustea.

Hobetzekoen artean, bestalde, eraikinaren egoerak eta lehiatilen eta komunen irisgarritasun ezak jaso ditu kritika gehien. %57k uste dute eraikinaren egoera ona dela, eta %24,7k, berriz, hala-holakotzat jo dute. Hobetzeko iradokizun gehienetan komunak berritzeko eta horien irisgarritasuna hobetzeko jaso dute herritarrek. Udaletik esan dute hobekuntzak egiteko



konpromisoa hartuko dutela. Azkenik, inkestatuen %86,1ek gomendatu egiten du Herriko Antzokia.

Inkestako emaitza guztiak [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean daude ikusgai.

Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkie inkesta bete duten guztiei, eta parte-hartzaileen artean Txankakua merkataria elkarteko dendetan erosketak egiteko bonu bat zozkatu dute. Iker Zubiaurre izan da sariduna.

### Agortu egin dira Mendaroko jazz kontzerturako sarrerak



Mendaroko III. Jazz Eguna antolatuta dute Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak gaur iluntzerako, Gararock taldearen laguntzaz, eta antolatzaileek jakinarazi dute sarrera guztiak agortu direla. Malwina Masternak abeslari poloniarrek emango du kontzertua, 20:00etatik aurrera, San Agustin kulturgunean. Jazzean eta musika garaikidean espezializatutako abeslari, konpositore eta hezitzailea da Masternak. Miguel Rodriguez (pianoa), Joan Terol (bateria) eta Javier Callen (kontrabaxua) musikariak izango ditu lagun oholtzan Masternarekin. 🎷 Fernando Marcos

## Hemeretzi lagunek hartu dute parte Lumiere Minutua laburmetraiak sortzeko lehiaketan

**M**inutu bateko film laburrak sortzeko Lumiere Minutua tailerra egin zuten zapatuan Mendaron, eta 40 bat lagunek hartu zuten parte. Limbus Filmakeko zuzendari Iban Del Campok sustatu zuen ekitaldia, Uztargi tabernaren eta Galle-tiak gozotegiaren babesarekin. Toma bakar batean, gehienez minutu bateko filmak sortu behar zituzten partaideek, eta hala nahi izan zutenek lehiaketara aurkeztu zituzten gero beren lanak. Guztira 19 lagunek aurkeztu zituzten. *Bizirik* izeneko lanak jaso zuen lehenengo saria. *Beldurra* sailkatu zen bigarren eta *Denboraren makina* izenekoak izan zen hirugarrena. Publikoaren saria, bestalde, *Denboraren makina* lanak jaso zuen.



### Trouble Woman taldearen kontzertua, domekan, Aita Agirre kulturgunean



Trouble Woman taldeak kontzertua emango du domekan, Aita Agirre kulturguneko sarreran. Nagore Fernandez errenteriarraren proiektua da Trouble Woman musika taldea. Pop-rock-fusio feminista egiten dute, eta hainbat estilo eta hizkuntza uztartzen dituzte, generoaren ikuspegia kontuan izanik. 20 urte baino gehiago daramatza Fernandezek musika munduan, eta iaiz kaleratu zuen estreinako diskoa Trouble Woman taldearekin. 12:30ean hasiko da ikuskizuna.

### 'Loti ederrak' antzerkia, domekan, Herriko Antzokian



Glu Glu Produksioak *Loti ederrak* antzezlanak taularatuko du domekan, Herriko Antzokian. Ipuin klasikoaren antzerkirako egokitzapena da, baina oraingoan ipuin klasikoak gaur egungo gai gatazkatsuenetako batez jarduteko baliatuko dute: haur zein nerabeen sare sozialekiko menpekotasuna edota esklabotza. Nerabe talde bat eta haiek imitatzen dituen neskatok dira protagonistak, eta denek sare sozialetan arrakasta lortu nahiko dute. Familia antzerkia da, eta 16:30ean hasiko da.

## Emozio gutxi San Anton txapelketako finaletan

**H**otz egiten zuen arren, ikusle dezente gerturatu ziren Ikastolako frontoira San Anton Torneoko finalak ikustera, barikuan. Tamalez, kantxan baino giro eta emozio handiagoa egon zen harmailetan, hirutik bi final kolore bakarrekoak izan baitziren. Animazio handia egon zen harmailetan, goiko aldean bereziki, han zeuden zale gazteenak kantuan aritu baitziren pilota jaialdi guztian zehar.

Lehen finala izan zen gaueko parekatuena, Goiuri Zabaletak (Leitza, 2009) eta Leire Garaik (Gasteiz, 2003) kaiolan jokatu zutena. 14 urte besterik ez dituen arren, Zabaletak estu hartu zuen Garai. Azken txanpan, baina, segurtasun handiagoa erakutsi zuen gasteiztarrek eta 22-15 gailendu zen. Lagunak Pilota Eskolak bigarrenen antolatatu du emakumeen Lau t'erdiko txapelketa. Miriam Arrillagak estreinatu zuen palmaresa iazkoan.

Gizonezkoen promesa mailako finalistak kantxaratu ziren gero. Ibarluzearekin batera Canseco zen finala jokatzekoa, baina ezin izan zuen eta Iker Garciak jokatu zuen bere ordez. Apezetxea eta Landak osatutako bikotea izan zuten aurkari, eta azken horiek gailendu ziren, 22 eta 11ko emaitzarekin. Oartzungo Oiarpe taldeko pilotaria den Unax Landa aurrelaria aukeratu zuten finaleko pilotaririk onena.

Nagusien mailan, Javier Oskozek eta Markel Lizeagak osatutako bikoteak erakustaldia eman zuen eta sei tantotan laga zituzten Josu Igoa eta Antton Apezetxea pilotari nafarrak. Lagunak Pilota Eskolako zuzendari Aitor Berguak Antonio Azpiazu gogora ekarri zuen sari banaketa ekitaldian, txapelketako 30 ekitaldietan laguntzaile eta antolatzaile izan baitzen joan den irailean hil zen Azpiazu. 🇪🇸 Asier Orbea



## 2024an hazten jarraitu nahi du CATT Morkaikok



Orain arte egindakoaren errepasoa egin eta denboraldia nola antolatuko duten jakiteko batzarra egin zuten barikuan CATT Morkaiko taldeko lagunek. Eta, argazkian erreparatu daitekeen moduan, hazten jarraitzen du taldeak. 32 taldekide izatetik 61 izatera pasatu dira aurten: 54 gizonetako eta zazpi emakumezko (iaz emakume bakarra zuten taldean). Adin eta mendi lasterketetako modalitate guztietan

aritzen diren antxixikariak dituzte taldean, eta berritasun modura, aurten Euskal Herriko Kopan eta Euskadiko Txapelketako diziplina ezberdinetan lehiatzeko azpitaldeak sortuko dituzte. Taldekide berriez gainera, babesle eta laguntzaile berriak ere batu zaizkie taldera, eta ekipazioa ere estreinatuko dute. Berrikuntza guztien berri emateko aurkezpen ekitaldi bat egiteko asmoa dute.

### Iker Ruizek irabazi du Mintxeta Xake Txapelketa

Domekan eman zioten amaiera urriaren 9an hasi zuten Mintxeta Xake Txapelketaren hirugarren ekitaldiari. Leku askotariko 26 xakelari aritu dira lehian Zubi Ondo xake taldeak eta Mintxeta tabernak antolatu duten txapelketan. Liga txapelketan Iker Ruiz soraluzearra eta Markel Kerexeta elgoibartarra izan ziren onenak, eta elkarren aurka jokatu zuten finala. Ruizek irabazi zion Kerexetari. Liga txapelketan kanporaketetara sailkatzea lortu ez zuten xakelariak Kopa txapelketa jokatu dute, eta Andres Perez azpeitiarra eta Lander Agirregomezkorta elgoibartarra sailkatu ziren azken partida jokatzeko. Andres Perezek irabazi zuen finala.



## Espainiako Oilagor Ehiza Txapelketaren palmaresa estreinatu du Leire Egañak

**O**ilagor ehizan Espainiako txapelketa irabazi du Euskadiko Ehiza Federazioa ordezkatu duen Leire Egaña elgoibartarrak. Bera da ehiza modalitate honetako estreinako Espainiako txapelduna. Izan ere, iaz antolatu zuten estreinakoz emakumeen Espainiako Oilagor Ehiza Xehe Txapelketa, baina inork ez zuen oilagorrik ehizatu Zamoran jokatu zuten lehian, eta antolatzaileek titulurik ez ematea erabaki zuten. Ehiza espezie zaila bezain preziatua da oilagorra. Udazkeneko koloreen adierazgarri da hegazti migratzaile honen lumajea eta kamuflajea ere bai. Horregatik behar dute ehiztariek txakurraren laguntza, ingurunean mugimendurik egin gabe ezkututzen dakien hegaztia baita.

Egañak *Lur* txakurra, 3 urteko setter ingelesa, izan zuen lagun Puebla de la Sierran (Madril, Espainia) dagoen Sonsaz-eko ehiza barrutian jokatu zuten txapelketan. Hamar ehiztarik hartu zuten parte eta Leire Egañak lortu zuen puntuaziorik onena, 1.000 puntu, bi oilagor ehizatzeagatik. Gaztela Mantxako ordezkarri Lola Abellanek eta Euskadiko ordezkarri Ainhoa Toledok oilagor bana ehizatu zuten, eta gainerako lehiakideek ez zuten alerik ehizatu. Joxe Mari



aitak eta Arkaitz nebak irekitako ehiztari sagari haiek baino beranduxeago heldu zion arren, palmaresa dotorea osatzen dihardu Leire Egañak. Birritan izan da txapeldunorde Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan, 2018an eta 2019an; eta, sei alditan irabazi ditu ehiza modalitate horretako Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak. Compak sporting eta ehiza ibilaldietan ere Gipuzkoako sei txapel eta Euskadiko beste sei titulu ditu. Azken horiek plater tiraketa modalitateak dira, ehizaren simulazioa egiten dutenak bere hegaldiek. San Huberto ehiza modalitatean ere baditu garaipenak. Bi alditan izan da Gipuzkoako zein Euskadiko txapeldun.

### Zarauztik Zumaiara, mendiz mendi



Kostaldeko paisaietaz gozatzeko eguraldi egokia izan zuten domekan Morkaikok eta herriko ikastetxeetako gurasoek antolatzen dituzten mendi irteeran parte hartu zuten 70 lagunek. Tenperatura hotz baina eguzkitsuarekin egin zuten Zarauztik Zumaiara arteko ibilbidea.

Zumaiatik Zarautzera egitea aurreikusita zuten arren, ibilbidearen zentzua aldatzea erabaki zuten, obrak direla-eta tren zerbitzuan egin dituzten aldaketengatik. Hurrengo irteera ere kostaldera egingo dute, Mutriku eta Ondarroa aldera, otsailaren 18an.



## Salento Gelatik lehen postua eskuratu du Olaizagan jokatu duten promozio fasean



Barikuan, Gipuzkoako Txapelketa irabazi berri duen Mek Eibar taldearen aurkako derbiarekin hasi zuten promozio fasea, eta 27-34 gailendu ziren elgoibartarrak. Zapatuan, 28-28 berdindu zuten Saieko taldearen aurka, eta domekan 37-30 irabazi zioten Urdaneta taldeari. Promozio faseko lehen hiru sailkatuek lortu dute Euskal Ligako bigarren faserako sailkatzea: Salento Gelatik, Urdanetak eta Mek Eibar taldeek. Euskal Liga txapelketaren bigarren zatian hamabi talde arituko dira lehian, bi multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko bi talde onenak sailkatuko dira Lauko Finala jokatzeko. Salento Gelati Elgoibar taldearen multzoan honakoak izango dira aurkariak: Kukullaga, Orio, Pulpo, Eibar eta San Adrian.

Joan den urrian hasi zuten kadete nesken Euskal Liga txapelketaren lehen fasea. Hamar talde aritu ziren lehian eta elkarren aurka jokatu ostean, lehen sei sailkatuek zuzenean lortu zuten bigarren faserako txartela. Aldiz, zazpigarren eta zortzigarren sailkatuek, bigarren fasean aritzeko promozioa jokatu zuten joan den asteburuan. Salento Gelatik zazpigarren postuan amaitu zuen lehen fasea eta promozio fasean aritu diren zortzi taldeetako bat izan da. Zortzi taldeok Elgoibarren eta Ermuan jokatu dituzte promozio faseak. Euskal Ligako taldeek Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako txapelketetako lehen sailkatuak izan dituzte aurkari, bigarren faserako sailkatzeko lehian. Salento Gelatik merezimendu osoz lortu du bigarren faserako sailkatzea, Sanlok antolatu duen Elgoibarko promozio fasean jokatu hiru partidetatik bi irabazi eta bat berdindu baititu.

### Elgoibar Igeriketa taldekoak Azkoitin izan dira

Elgoibar Igeriketa taldeko igerilariak Azkoitiko proban hartu zuten parte joan den zapatuan. Bular eta bizkar estiloan egin zuten igeri, eta proba batean erreleboka ere jardun ziren, 6x25 eta 4x40 modu librean. Arduradunek esan dutenez, gustura aritu ziren eta maila ona erakutsi zuten.



### Jose Gurrutxaga krosetan izena emateko epea, zabalik

Apirilaren 21ean jokatu dute Jose Gurrutxaga krosaren 29. ekitaldia. Elgoibar Ikastolatik jakitera eman dutenez, eskola-umeek ikastxeetan eman ahal izango dute izena, baina 16 urtetik gorakoek [elgoibarikastola.eus](http://elgoibarikastola.eus) webgunean eman beharko dute izena, eta otsailaren 2a izango da horretarako azken eguna. Antolatzaileek ohartarazi dute egunean bertan ez dela izena emateko aukerarik egongo, eta alde zuzenetik izena ematen dutenek bakarrik parte hartu ahal izango dutela. Izena emateko: [elgoibarikastola.eus](http://elgoibarikastola.eus).



**LANA****Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **631 664 700**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Goizez lan egitea nahiko nuke. Esperientzia daukat. **667 051 376**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta urteetako eskarmentua. **600 082 234**

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka eta asteburuetan. **643 505 827**

Goizetan lan egiteko prest. **641 755 672**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia eta erizain titulua ditut. **643 505 662**

Baso inguruak zaintzen egingo nuke lan, sastrakak kendu, garbitu, pinuak moztu edo landatu... **641 912 286**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Orduka eta asteburuetan. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest. **644 655 354**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Orduka, asteburuetan edo ospitaletan gauak pasatzeko prest nago. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo ospitalean. Esperientzia eta titulua daukat. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest. **642 577 823**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Titulua daukat eta esperientzia ere bai. Erreferentzia onak. **614 114 360**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **663 102 472**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. **611 215 176**

**GARAJEAK**

Garaje itxia alokatzen dut Trenbide 9an (Sarrera, Lekuederretik). Lehenengo pisuan. **670 406 748**

**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzkoako Enkain Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Mª  
PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**

**rosapf@telefonica.net**

**Eraikitzaileak pisuak saldu aurretik egindako elementu komunen aldaketak baliozkoak diren jakin nahi nuke. Aldaketa hori ez dago jasota erregistro-dokumentazioan.**

Batzuetan, sustatzaileak edo eraikitzaileak, pisuak saldu aurretik eta eratze-titulua eman ondoren, komunitateko elementu komunetan aldaketak egiten ditu, eta horiek aldatu egiten dute eraketa-tituluan horiei buruz egiten den deskribapena.


Kasu horietan, egoera faktikoak titulu eratzailaren ezarritakoa baino balio handiagoa du, eta sustatzaileak elementu komunetan egindako aldaketa horiek guztiz baliozkoak dira.

Atikoen terrazak ixtea izaten da kasurik ohikoena, eta, horrela, Eraikuntza Tituluan jasotakoa baino azalera handiagoa ematen zaie. Kasu horietan aldaketa legezkoa izango da Jabetza Horizontalaren Legearen ikuspuntutik.

**Gomendioa: Aldaketa horiek hirigintzako araudia bete beharko dute; izan ere, bete ezean, edozein jabek aipatu ahal izango du dagokion organismoetan..**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Julen!** 7 urte, dagoeneko! Jarraitu horrelako alai! Muxu handi bat familiakoen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Alaia,** bihar 5 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familiako guztion partez. Gu prest, merendolarako!



Zorionak, **Josu,** bihar 9 urte beteko dituzulako. Zu beti izango zara gure txapelduna. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Eneko!** Bihar 11 urte beteko dituzu eta familia osoak elkarrekin ospatuko dugu. Oso ondo pasa eta jarraitu zaren modukoa izaten.




Zorionak, **Luken, Lea** eta **amama,** beste urte bat betetzeagatik. Etxekoan partez.






Zorionak, **Erik!** 4 urte, dagoeneko! Muxu handi bat arrea Sararen eta amatxoren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

 **Jarraitu gaitzazu BARRENEK**  
*Youtuben duen kanalean!*



[www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos](http://www.youtube.com/user/Elgoibarrennet/videos)

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**LG GBP52PZNCN1 KONBI HOZKAILUA**





**775 €**

- Izotzik ez.
- 203 zm-ko altuera
- 384 litro edukiera
- Freskotasuna mantentzen duen kaxoia
- Barruko display-a
- Hatz marken kontrako altzairua

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

**26 BARIKUA**

**20:00** Mendaroko III. Jazz Eguna: Malwina Masternak abeslariaren kontzertua. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Uztargi tabernak eta Galle-tiak gozotegiak antolatuta, Gararock taldearen laguntzarekin. Sarrerak agortu dira.

**27 ZAPATUA**

**12:00** Ganadu erakusketa egingo dute, Elgoibarren.

**28 DOMEKA**

**12:30** Kontzertua: Trouble woman. Aita Agirre kulturgunean.  
**16:30** Familia antzerkia: 'Loti ederrak'. Glu Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

**29 ASTELEHENA**

**18:00** Hausnarketa saioa: 'Nahi dudan bizitza bizitzen ari naiz?'. Lorei Salegik gidatuko du saioa eta elebitan izango da. Lilan, emakumeentzat.

**30 MARTITZENA**

**18:00** Literatura tailerra, Consuelo Carrererekin. Elgoibarko Udal Liburutegian.

**31 EGUAZTENA**

**19:00** Epeletan literatura tailerra. Elgoibarko Udal Liburutegian.  
**19:00** Elgoibarko Udalaren legealdi planaren aurkezpena. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

**2 BARIKUA**

**18:00** 'Indarkeria matxista amaitzeko antolatu', proposamen politikoaren aurkezpena. Itaiak antolatuta, Mendaroko Udaletxeko Arno aretoan.  
**18:30** Kafe tertulia: 7. artea. Haizeak antolatuta, Lorei Salegik gidatuko du. Lilan.

## Zinea

### Herriko Antzokian



**'Los que se quedan'**  
26, barikua: 19:00  
27, zapatua: 19:00 / 22:15  
28, domeka: 19:00  
29, astelehena: 21:00

**'El regreso de las golondrinas'**  
(Ongarri zinekluba)  
31, eguaztena: 21:00

**2024ko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**URTARRILA**

26 BARIKUA	Barrenetxea
27 ZAPATUA	■ Ibañez / ■ Yudego
28 DOMEKA	■ Ibañez
29 ASTELEHENA	Garitaonandia
30 MARTITZENA	Arriola
31 EGUAZTENA	■ Fernandez
1 EGUENA	Yudego
2 BARIKUA	■ Oruesagasti

**2024 urte guztian, gauzez:**  
**Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)**  
**943 204 230**

■ Fernandez:  
Herriko  
Enparantza,4  
Garagartza  
(Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1  
(Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384



Aste honetako erretratu zaharra Altzolako emakumezkoentzako eskolan ateratakoa da, 1964-1965 ikasturtean. Argazkian ume direnek oroitzen dute tarteka joaten zitzaizkiela eskolara argazkia egitera, baina ez dute gogoan zein motiborekin atera zieten erretratu hau. Ikus ditzagun nortzuk diren argazkiko neskak.

Goian, ezkerretik eskumara: Paki Alcalde, Mariasun Isasti, Mila Garcia, Rosamari Lariz, Mari Huidobro, Justi Calvo (irakaslea), Marina Gurrutxaga, Regina Isasti, Matilde Larrañaga, Maria Angeles Larrañaga eta Marixabel Lariz. Behean, ezkerretik hasita: Mari Zafra, Rosita Gorriti (✠), Angelines Huidobro, Angelines Garcia, Fatima Lariz eta Ana Rosa Lariz.





## Erretratu zaharrak behar ditugu

**Inauterietako** argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Barreneko bulegora ekarri: **Alta Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk.**




## Belaunez belaun

Anjel Ugarteburu



Hiztegiak erakusten digu, kasu askotan, herri eta gizartearen nondik norakoa. Hitzak eurak bihurtzen dira horrela bide erakusle eta maisu.

Belauna da horietako bat. Latinez *genus* eta handik *generación* eta *generation*. Belaunei esker belaunikatzen eta zutitzen gara. Haien loturari esker makurtu izan da gizakia, nagusia edo Jainkoren bat gurtzeko; baita zutitu ere borrokatzeko, lanean jarraitzeko, injustiziei aurre egiteko.

Belaunaldi hitzak giza bizitzaren iraupena adierazten du. Amaren altzoan edo belaunen gainean edoski dugu titia eta gurasoen belaunetan jaso ditugu lehen fereka eta musuak; han entzun genuen sarritan gure izena. Baita ipuinak eta lo-kantuak ere. Halaxe, belaunez belaun, elikatu eta hazi gara gorputzez zein hizkuntzaz, maitasunezko harreman hurbil eta goxoan.

Jean Barbier Garaziko euskal olerkari eta idazleak *Supazter xokoan* liburuxkan bildu zituen hainbat ipuin eta abesti XIX. mendean. Hain zuzen ere, beheko suaren ondoko aulkian, epel-epeletan, guraso zein aitita-amamek seme-alaba zein bilobei konta eta kanta ohi zituztenak. Horra, maitasunezko harremanetan, hitz eta melodien giro epelean gauzatzen zen lehen eskola. Ama-hizkuntzan.

Belaunaldi berriek ere amaren titia, guraso eta aitona-amonen hurbileko harremana beharko dute hizkuntza zein sentimenduak garatuz bizitzarako prest egoteko.

Mundua txiki bihurtu da, ordea, eta eskolara sartzen direnen artean zenbat ama-hizkuntza, zenbat melodia ezberdin! Ez da erraza ume-umetatik jasotako ezberdintasun horiek bideratu eta kudeatzea. Dena den, hor izango dute denek belaunetan jasotako elikadura fisiko zein sentimentala, hizkuntza guztietan antzerakoa maitasunezko harremanean.

Lizardik, Zarauzko olerkari handiak, *Amonaren heriotzean* izeneko olerkiko ahapaldi honetan idatzita utzi zuena harira dator.

Amonaren aulkia, hago sutondoan.

Haren ipuinik jaso al dek gogoan?

Hik ez? Laratzak? Ezta! ezuste gozoan

Geunden ta gure poza betiko da joan.

Eta hala jarraitzen du: "Geroztik ari nauzu hauts zaharrak astintzen, aitona-amon guztien ipuinak jasotzen eta magalean biltzen..."

Internet bidez trumilka iristen diren eduki kontrolagaitzek ezingo dute inoiz ordezkatu belaunez belaun iritsi den elikadura hori. Belaunaldi hitzak ez du inoiz bere zentzu sakona galduko.





III. URTEURRENA  
**Enrique Galan Jusue**

2021eko urtarrilaren 29an hil zen.

**Beti gure bihotzean.**

Lagunak eta senideak




I. URTEURRENA

**Mariasun Ulazia Soraluze**

2023ko urtarrilaren 26an hil zen. Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 28an, 12:30ean, Mendaroko Azpilgoetako elizan. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

**Urte bat zu gabe;  
maite zaitugu.**

Etxekoak



VIII. URTEURRENA

**Garbiñe  
del Hoyo Murua**

2016ko urtarrilaren 28an hil zen,  
48 urte zituela.

**Zeruko izarren artean  
aurkitu duzue tokia,  
lurrean utzi dituzuen  
izarrei emateko argia.  
Zuen indarrak emango  
digu benetako bizia,  
egunsentiarekin batera  
jarraitzeko bidia.**

Zuen familia



III. URTEURRENA

**Desiderio  
del Hoyo Amigo**

2021eko otsailaren 19an hil zen,  
78 urte zituela.

Haien oroimenez urteurreneko meza izango da, domekan, urtarrilaren 28an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.





2024KO OTSAILAREN 10EAN

# ATXUTXI KARAOKEA

MAALAKO PARKEAN  
17:30-19:00



2024KO OTSAILAREN 10EAN

# BERTSIO GAUA

Sariak:

Taldeko 1. saria: 250€

Taldeko 2. saria: 170€

Bakarkako saria: 170€

Sari berezia: 150€

00:00-02:00

MAALAKO PARKEAN

Izen ematea aurrez edota egunean bertan

Informazioa: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

 943 741 746

